

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3130

HUTS-ZUZENKETA, agindu honena: Agindua, 2025eko ekainaren 9koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 2025eko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren «de minimis» araubidean jasotako laguntzak emateko (Gastrobikain Programa 2025).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Era horretako hutsak atzeman dira Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko ekainaren 9ko Aginduan (2025eko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 113. zk.), zeinaren bidez 2025eko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren «de minimis» araubidean jasotako laguntzak emateko (Gastrobikain Programa 2025). Hori dela eta, hona hemen zuzenketa:

Euskarazko argitalpenean, 2025/2699 (30/1) orrialdean, azken paragrafoan,

hau dio:

«...1.050.000 euroko...».

Baina, hau esan behar du:

«...750.000 euroko...».

Euskarazko argitalpenean 2025/2699 (30/13) orrialdean, I. Erankina, 11. Oinarria, 1.B), b),

hau dio:

«

b.1.– Michelin izar 1: 15 puntu emango dira.

b.2.– Michelin izar 1: 10 puntu emango dira.

b.3.– Michelin izarrik ez eta aintzatespenak beste gida batzuetan: 5 puntu emango dira.

».

Baina, hau esan behar du:

«

b.1.– 2 ala 3 Michelin izar: 15 puntu emango dira.

b.2.– Michelin izar bat: 10 puntu emango dira.

b.3.– Michelin izarrik ez baina aintzatespenak beste gida batzuetan: 5 puntu emango dira.

».

2025eko uztailaren 16a, asteazkena

Euskarazko argitalpeneko 2025/2699 (30/28) orrialdean, IV. eranskineko taulak – Diruz Lagundu daitekeen Aurrekontu xehatua Kapituluka, aldatu behar du eta honako hau izan behar du:

Gastu-kapitulua	2025	2026	Guztira
A) Obra zibila egiteko nahitaezko lanbide-ordainsariak			
B) Lokala egokitzeko lanak, makineria erostea, instalazioak egitea, altzariak			
C) Bulegotikako ekipamendua, lanabesak			
D) Inbertsioak egitea, ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko			
E) Enpresaren funtzionamenduarekin zerikusia duten programa informatikoak, web-plataformak, on line erreserben softwarea, sare sozialak			
F) Bikaintasunaren sustapenerako aholkularitza-plana			
G) Proiektua gauzatuko den lokalaren lehen urteko errentamendua			
H) Lokala erostea edo eskualdatzea			
Baturak bat etorri behar du eskabidearen BEZik gabeko inbertsioaren guztizko zenbatekoarekin			